

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN EUSKARA ZERBITZUAK GASTEIZTIK EUSKALTZAINDIARI BIALDU DEUTSAN «EUSKA- RAREN ERABILERA BIZKAIKO IRAKASKUNTZAN» DALAKOARI OHARRAK

Alfonso IRIGOIEN

Deklinabideari jagokozanetan hurrengo honeek:

1. Oharrok forma hutsen ganean bakarrik egingo dira, bestelako eritxietan sartu barik.

2. Mugatu pluralak *-akaz*, *-akan*, *-akana*, *-akanantz*, *akanaino*, *-akandik* —baita *-akanik* bere— *-akaitik*, izan behar dabe, eta ez *ekaz*, *-ekan*, *-ekana*, eta abar. Arrazoa: Bizkaiko autore zaharrak horretara erabili izan dabela eta gaur eguneon bere Bizkaiko euskaldun gehienok holan erabilten dogula eta izan bere euskera batuan horretaraxe ipini da eta orain era barria ontzat hartzea besteakanik urruntzea dala, lehen batera genbiltzala.

Mogel-en *Peru Abarca* dalakotik¹ eredu honeek hartzen ditugu: *ezdogu icusi aserratuta ez bere nausiaguaz, ez bere nebaacaz*, 106 orr.; *Olara biar dogu, ta bazuaz ceure soñoco bichidun ta ederracaz, urtengo dozu sartu cinialaco damubaz*, 116-117 orr.; Mikoletak XVII-garren gizaldian²: *lelengo, lau alcandora euren ydun lechuguillascoacas*, 30 orr.; RS dalakoan 1596-garren urtean³: *Muxica arerioacaz aguica* «Muxica a dentelladas con los enemigos», n.º 270; *Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echi* «por las treguas de Butron no dexes las armas», n.º 404.

1. Juan Antonio de Moguel, *El doctor Peru Abarca*, Durango 1881. Igaz Gerediagararrak eginiko edizino erretratuzkoa dogu orain.

2. *Modo Breue de aprender la lengua vizcayna compuesto por el Ido. Rafael Micoleta, presbyrº de la muy leal y noble Villa de Bilbao*, 1653, Sevilla 1897. Edward Spencer Dodgson-ek eginiko edizinoa. Bigarrena da.

3. *Refranes y Sentencias*, Pamplona 1596. W. J. Van Eys-en edizinoa, *Proverbes basques-espagnols*, Genève et Bale 1896.

3. Ablatiboan *-tarik* eta *-etarik* bere sartu beharko lirateke, hainbat kasutan *arrantzaleetarikoa* eta horrelakoak hain zuzen bere Bizkaian oraindino erabilten doguzalako eta horrexegaitik beragaitik sartu zirealako euskera batuaren deklinabidean bere, Ifarraldekoak erabilteaz ganera.

4. Destinatiboa kasu batzuetan *-ko* da. Esaterako: *betiko*, *geroko*, *ekarteko*, eta abar. Bestea danean, *-(r)entzat* formeari jagokona, esan behar da Bizkaiko euskalkian badaukala *-(r)endako* aldaerea bere eta euskera batuko deklinabidean badatorrela.

5. Ondo dago *baten* formea inesibo kasurako, baina artikulua badaroa *batean* da. Biak erabilten dira eta erabili bere ondo.

6. *Batzuren*, *batzurentzat*, *batzutan*, *batzutara*, ez dira Bizkaiko formak inondik bere.

7. Eta ez naz sartzen zehaztasun gehiagotan. Egia esateko Euskaltzaindiak argitarara eban deklinabideak bardin bardin balio dau Bizkairako bere, bertako formak haututen badira. Falta dan bakarra, oker ez banago, *-gaz* da. Halan da guztiz bere oraingo barrian ez datozan Bizkaikoak badatoz batu-koan.

8. Aditzean *jatot* formea erratua izango da, *jatort* da zuzena.

9. *Deuat* eta *deunat* formen pluralak *deuadaz* eta *deunadaz* dira.

10. Bardin *dinoat* eta *dinonat* formetan: *dinoadaz* eta *dinonadaz*.

11. Mogel-en erara egingo balitz *dakarko* ipini beharko litzateke, eta ez zimentarririk ez dauken *dakartso* eta horrelakoak, eta izan bere ondo ipini dira *bekarko* eta abar, behe-rago. Era berean *daroko*, *darabilko*, eta ez *darosatso*, *darabiltso*, eta abar. *Eroan* aditzari jagokonez esan behar da *RS* dalakoan *deroat* «me lo lleva» eta *daroa* «lo lleva» datozala eta horretara *dekarko* eta abar beharko liratekeala tradizino zaharrari jarraitu gura bajako⁴.

RS 1596: Tacoc deroat dodana neure eherean cejara «para me lleua lo que tengo de mi casa al mercado», n.º 82, baina *Beloritac berea daroa* «el rollo lo suyo lleua», n.º 196, eta *ezta gachic aldiac ez daroceanic* «no ay daño que el tiempo no le lleua», n.º 221; *Badeguioc ññori, eyngo deusc bestec yri* «si hazes a alguno, harate otro a ti», n.º 13, baina *zaran bat daguiñac bi day* «quien hiziere vn cesto hara dos», n.º 34, eta abar.

Mogel-en *Peru Abarca* dalakotik, ostera, hurrengo hau atera daiteke: *Guizon onac jaso naguizu ta ezarri oera. Dakardela barberua*, 76 orr.; *Datorrenian ona Jangoicuaeren deicoren bat, icusteco ta poztutecua da, celan, bata baño bestiac aurrerago diriala, daruaquen arto zatija edo catillucada saldia*, 105-106 orr.; *Campae otsa dozu barriz. Atsuari daruaque abadía. Ilten bada juañ zan nire*

4. Alfonso Irigoyen, «Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaino literario», *Euskera* III (1958), 105-132 orr.

querellia, 81 orr. Eta 34 orrialdean dino: «Un solo ejemplito entre muchos bastará para aclarar lo que digo.

«*Necarzuzan...* Yo te los traía.

«*Cecardazan...* Tu me los traías.

«*Ecardazan...* Aquel me los traía.

«*Guencarzuzan...* Nosotros te los traíamos.

«*Cecarguzan...* Vosotros nos los traíais.

«*Ecargubezan...* Aquellos nos los traían».

12. *Noa* eta abar ipini badira, gero *noanean* egiteko, *ninoan* behar da eta ez *ninoian*.

13. *Eroakon* eta abar, eta ez *eroatsan*, ..., *ekarkon* eta abar, eta ez *ekartsan*, ..., *erabilkon* eta abar, eta ez *erabiltsan*, ..., *balekarko* eta abar, eta ez *balekartso*, ... Begiratu gorago Mogelen adibideak.

14. *Daitson* eta holako formak *deion* dalakoaren ordeztu bakoak dira. Azkue-k berak bere honela biltzen ditu Bizkaian eta inguruetan bere Morfologia egiteko erabili eban eskuzko koadernuan: «Elorrio *daidxodala*, Amorebieta *deidxo(d)ala*, Anzuola *deidxodala*, Aramayona, Ubidea *daixo(d)ala*, Bakio *deidxodala*, Barrika *daiodala*, Bermeo *daidxodala*, Berriz *daidxodala*, Eibar *deixorala*, Begoña *deixodala* [ez dago argi], Legutiano *daidxodala*, Lekeitio *daidxodala*, Mondragon *daixodala*, Gernika *deidxodala*, Nabarniz *daidxodala*, Orozko *daiodala*, Olaeta *daidxoala*, Bolibar *daixodala*, Zeanuri *daiodala*, Zigoitia *daiodala*». Baita bere «Amorebietā *dei(d)azula*, Anzuola *deidazula*, Aramayona, Ubidea *daidazula*, Bermeo *daistazula*, Berriz *daidazula*, Eibar *deirazula*, Begoña *deidezule*, Lekeitio *daidazula*, Mondragon, Leniz *daidazula*, Gernika (Ajangiz) *deidezule*, Nabarniz *daidazula*, Orozko *daistazule*, Olaeta *daistazule*, Zeanuri *daidezule*», eta era berean «Barrika *daidala*, Eibar *deirala*, Begoña *deidela*, Mondragon, Leniz *daidala*, Gernika (Ajangiz) *deidela*, Nabarniz *daidala*, Orozko *daistela*, Olaeta *daistela*».

Ikusten danez Bermeon *daistazula*, baina *daidxodala*, Orozkon eta Olaetan *daistazule* eta *daistela*, baina *daiodala* / *daidxodala*, era barriko formak ditugu. Azkue-k, itandu eban lekueran behintzat, ez zituen *iast* eta *dast* erakoak bildu, baina Txorierrin erabilten direanen lekukotasuna nik neuk emon nei. Halan da guztiz bere holakoak erabilten dituenak eurak *iako* edo *dako* eta horretarikoak esaten dabez, azkenengoa Derio eta inguruetan.

Argi dagoenez forma barriok *deust*, *deustazu*, eta abar, datiboari begira dagozanetarikoen kontaminazioz sortu dira, eta lehenengo momentu baten *daisten*, *iast*, eta horretariko formetan hasi bazirean bere, badirudi oraintsu non edo nongo fokoren baten sistema osorako erabilten ekin jakola, *deitsa*, *deitsodan*, eta horretarikoak eurak bere ontzat harturik, neofoma indargura barriko legez begien aurrera ekarten jakuzala. Gauza bardintsua gertatzen da gorago ikusi ditugun *dakartso* eta horretarikoakaz.

Oraindino 1895-garren urtean Ama birjineaz liburu bat argitara eban deboto batek *daigun* erako formak eta *deidazula* erakoak bakotxa bere arlorako erabilten ditu⁵: ..., *ta guero guztioac zoriontasunean alabadu daigun bere Semeagaz batera*, 5 orr., alderdi batetik, eta *escatuten deusut jarichi deidazula ceure Seme Jesusgandic biotz otzana ta umildea*, ..., 52 orr., bestetik.

15. *Zedin* lehenago da *eitean* baino. Zaharretan *zidin* agertzen da asimilazioaren bidez. Beste alderdi batetik esango neuke *eiten* dala esaten dana eta ez *eitean*. Izan bere jagokon lekuan *naiten* eta abar ipini dira.

16. *Neintekio* formearen ordeztan *nenkikio* eta abar ipini beharko lirarteke. Arrazoi berberagaitik *nakikio* orainaldian. Bardin *nenkikion*, eta ez *neintekio* eta abar.

RS 1596 dalakoan: *aspertu banequio asper lequiquet* «si me le yo vègasse, vègarse meya», n.º 10.; *Egaz manequi ora nequiqueo choriari* «si volar supiesse trabaria el paxaro», n.º 230.

17. *Daiket*, *daike* eta abar sartzen direan paradigmearen hurrengoa, «zer-nori-nork» formei jagokena, hutsik dago nota bat dauela ondoan. Halan dino: «Idatziz, literatura mailan ez da inoiz erabili». RS 1596 dalakoan hau dator: *Az ezac eroya, diratâ beguia ta mutil guextoac quendu deyque arguia* «cria al cueruo, sacar te ha el ojo, y quitar te ha la luz el mal moço», n.º 136, datiboari begira dagoenez gero *-e-* dauela sustraiaren aurretik.

Daiket, *daike* eta abarrek ohar bat daroe dinoana: «Forma honeek literaturaren tradizioan oinarriturik badagoz bere ez dira entzuten». Eta izan bere holan da. Mogel-en *Peru Abarca*-ko testo bat ekarten deust gogora autore horren erabilpidea erakusteko: *¿Noc sinistu lei, guizonen premiña бага artu daiqueezala linuac dacazan, ta enzun dituzun arazo ta lor guztijac?*, 147-148 orr. Alderdi batetik *sinistu lei* eta bestetik *artu daikeez*, batak eta besteak bakotxak bere arloko zeregina ondo beterik. Haren testoan *daiket* erakorik sarri agertzen ez bada bere badauka beste bat: *Zuc zeure soñoco bichidunoc baño, nic gueijago estimetan dot buruco ule trenza guerrirraño elduten jatana, ta zapi бага nun nai erabilli daiquedana*, 70 orr.

18. Beste alderdi batetik ez legoke ezelako problemarik *dakarko* eta arlo horretako ganerakoan ordeztan *dakarkio* eta abar ipiniko balitz, baina ez da beharrezkoa *dakarko* ipinten bada. Horrela ez gara urruntzen besteakanik.

Aulestin 1982-garreneko abuztuaren 5-an.

5. *Jaungoicoaren Ama Birgiña guztiz garbiaren bizitza, bere debociñoeco eguizuzun, erregru ta cantacaz gueituta, deboto batec iminia*, [Durango 1895].